

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA. GIPUZKOAKO ATALA
UPV/EHU_n ENPRESA ZIENTZIETAKO DIPLOMATURATIK ENPRESEN
ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZAKO GRADURA EGOKITZEKO
IKASTAROA

(UPV/EHUK baimendua eta ANECA eta UNIQUALEk egiaztatua)

1.-IKASKETEN DESKRIBAPENA

UPV/EHUko Gipuzkoa Atalako Ekonomia eta Enpresa Fakultateak egokitze ikastaro bat prestatu du Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Gradua eskuratu nahi duten Enpresa Zientzietako diplomatuentzat.

2.-IKASTAROAN SARTZEKO BEHAR DEN PROFILA

Ikastaroa egiteko ezinbestekoa da Enpresa Zientzietako diplomatu titulua izatea.

3.-EGOKITZE IKASTAROAREN IRAKASKUNTZA PLANA

Ikastaroan landuko diren gaitasunak, ikaskuntzaren emaitzak, metodologia eta ebaluazioa bat etorriko dira titulazio osoarekin. Hala ere, egokitze ikastaroa diplomatuei zuzenduta dagoenez, eta haiek diplomaturan zehar trebetasun eta gaitasun jakin batzuk eskuratu dituztenez, ikastaroko gaitasunak, emaitzak, metodologia eta ebaluazioa ondo moldatzen dira haien profilarekin.

Egokitze ikastaroak maila bakarra dauka, 60 ECTS kreditukoa. Honela banatzen dira kredituok:

a) 30 ECTS EAZko nahitaezko gaiei dagozkie

Nahitaezko irakasgaiak.

Kontabilitate Analisia (6 ECTS). 1. lauhilekoa.

Zuzendaritza estrategikoa: enpresa politika (6 ECTS): 1. lauhilekoa.

Zuzendaritza estrategikoa: enpresa hazkundea eta garapena (6 ECTS): 2. lauhilekoa.

Ekonometria (6 ECTS). 1. lauhilekoa.

Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza (6 ECTS). 2. lauhilekoa.

b) 12 ECTS Gradu Amaierako Lanari dagozkio

Gradu Amaierako Lana defendatzeko (12 ECTS), 2. lauhilekoko, lan hori ebaluatu dakion, ikasleak frogatu beharko du ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela, eta, hortaz, graduoko titulua lortzeko behar diren kreditu guztiak dituela, Gradu Amaierako Lanarenak izan ezik.

Aplikatu da Gradu Amaierako Lanari buruzko arautegia, UPV/EHUK eta Eskolako Batzarrak onartua.

c) 18 ECTS hautazko gaiei dagozkie

Ikasleak hautazko 18 ECTS egin beharko ditu, ikasturte horretan eskaintzen diren irakasgaien artetik aukeratuak. Ikasleak hautazko kredituak errekonozitu ahal izango

ditu borondatzeko praktikak eginez enpresetan (gehienez 18 ECTS), edo jarduera espezifikoen bitartez (gehienez 6ECTS).

Gainera, gradua lortzeko ikasleak egiaztatu beharko du "atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna" daukala. Modu bat baino gehiago daude horretarako: diplomaturako edo egokitze ikastaroko bi irakasgai (enborrekoak edo/eta nahitaezkoak edo hizkuntza prestakuntzako espezifikoetako) atzerriko hizkuntzetan egin izana; edo Erasmus truke programaren bidez gutxienez lauhileko bat egin izana aprobetxamendu egokiaz gaztelaniaduna ez den herrialdea batean; edo Gradu Amaierako Lana guztiz edo haren zati nagusi bat ingelesez, frantsesez edo alemanez egitea, edo B2 mailako ziurtagiri ofiziala izatea hizkuntzen europar erreferentzia-marko bateratuan.

4.-KREDITUAK ONARTZEKO PROZEDURA

Enpresa Ikasketetako Diplomatura Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradura egokitzeko taula egitean kontuan hartu da UPV/EHUko Enpresa Zientzietako Diplomatura (2003 plana, 2003ko apirilaren 23ko EBO); beraz, ikasketak plan horren arabera amaitu dituzten diplomatuei unibertsitateak modu automatikoan onartuko dizkie kredituak. Era berean, diplomatuok jatorrizko titulazioan hautazko kreditu gehiegi egin badituzte, eskatu ahal izango dute haiekin hautazko kredituak amortizatzea graduan.

Enpresa Zientzietako gainerako diplomatuentzat, Fakultate honetako Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordeak ebatziko ditu graduako ikasketa planera egokitzeko prozesuari buruzkoak.

5.-SARBIDEA ETA ONARPENA

Guztira, 30 plaza eskaintzen dira bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz).

Enpresa Ikasketetako diplomatu guztiek egin ahal izango dute egokitze ikastaro hau.

Ikasleak onartzeko irizpideak:

Ikastaroa egiteko baldintzak betetzen dituztenen eskariak ordenatzean kontuan hartuko da beren prestakuntzaren egokitasuna egokitze ikastaroaren diseinurako eta haien espediente akademikoko batez besteko nota. Irizpideok aintzat izanik, eskariak honela ordenatuko dira:

Lehendabizi, UPV/EHUko Enpresa Zientzietako diplomatuak, horiek baitira egokitze ikastaroaren diseinuarekin bat datorren prestakuntza jaso duten ikasleak, ANECAren egiaztatze espedientearen ageri den legez; horien artean, lehentasuna izango dute diplomatura 2013/14 ikasturtean lortu dutenek, horiek ez baitute aukerarik izango Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako lizentziaturaren 2. ziklora sartzeko. Eskariak espediente akademikoko batez besteko notaren arabera ordenatuko dira.

Bigarrenik, Enpresa Zientzietako diplomatura beste ikastegi batzuetan egin dutenak. Eskariak ordenatzeko irizpidea espediente akademikoa izango da.